**ERREPORTAJEA** JUBILATUENTZAT IMSERSOKO BIDAIAK · **GEHIGARRIA** FELIX ETXEBERRIARI ELKARRIZKETA

**KULTURA** "COMICÓLOGOS", UMOREZKO BAKARRIZKETAK GAUR, OSTIRALA, HERRIKO ANTZOKIAN

# Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko urriaren 5a/IX. urtea/378. zkia



## Hartu al duzue bainujantzia?

REN

NIMENDUA

AUTOEN ALOKAIRUA

Sigrnako industrialdea - r. eta 8. pabiloiak

MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!

400,ta.

Txanda eskatzeko deitu 902 103 287 telefonora!

TAILERRA



GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA



MANTENIMENDU OROKORRA • OLIO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN AIDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

GARBIKETA BEREZIA

700pta.

GARBIKETA LEHORKETA ARGIZARIA EMATEA

500pta.

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE



lbokuak

- Bizilagunen-elkarteko arazoen konponketa
- Etxea berritzeko dirulaguntzak bideratzea
- Diru kontuen gestioa
- Berrikuntzetarako aurrekontuen prestaketa
- Aholkularitza lanak
- Obra lanen jarraipena eta gestioa

Profesionalik onenak ditugu.

943 740 673
230 Posta kutxatila
20870 ELGOIBAR

Jar zaitez gure eskuetan!









ARAZOAK BEREHALA KONPONDUKO DIZKIZUGU.

HOBETU EZAZU ZURE BIZI KALITATEA!




## Herritarren iritzia

Gizakiok bakarrik daukagu sufrimenduari iseka egiteko ahalmena. New Yorkeko Dorre Bikien eta Pentagonoaren horma erorien azpian milaka hilotz daude oraindik ateratzeke, baina jendeak ez dio horregatik umoreari eta ironiari bizkarra eman. Negarra eta barrea anaia bikiak dira; hala entzun izan dut inoiz. Ez dakit izan duzuen Bin Laden, George Bush eta New Yorkeko atentatuen ostean guztion ahotan dabiltzan pertsonaien inguruko txisteren bat entzuteko aukerarik. Interneten etengabe ari dira umore garratzeko txisteak hara eta hona, eta niri ere iritsi zait bat edo beste posta elektroniko bidez. Ez zait begitantzen atentatuen kontua txisteak egiteko modukoa denik, baina ezin dut ukatu badagoela umore zorrotzeko bat edo beste.

Aldarte petraleko egongo direnak, ordea, Afganistango biztanleak izango direla iruditzen zait. Zerutik zer eroriko zaizun ez jakiteak ez du samurra izan behar. Ez dakit Bin Laden horren alde egongo diren ala ez. Ziurrenik nor den ere ez dute jakingo. Baina berdin dio, jakin bai baitakigu Afganistanen, New Yorken zein Euskal Herrian, herritarren iritzia ez dela sekula santan inportantea izan agintarientzat.

Ainhoa Lodoso



## Kanpoan lanean dabiltzan elgoibartarrei agurra

Udako oporrak honez gero urruti xamar gelditu badira ere, beti dugu gogoko momentu atseginak gogoratzea eta aurten kanpoan lanean dabilen elgoibartar batek eman dit poztasun momentu hori.

Opor hasieran, eguzki epeletako egunetan, horrenbeste atzerritarren artean anonimatoa sentitzeko plazerrarekin batera, halako batean, hotelean animatzaile gisa zegoen mutil baten aurpegia horren ezaguna egin zitzaidan! Berarengana hurbildu eta elgoibartarra zela jakitean berehalaxe hurbiltasunaren sentsazioa etorri zitzaidan. Hau marka! Alemanak, frantsesak, holandarrak, ingelesak eta... elgoibartar bat! Txisteetan bezala, gure ordezkari bat zegoen han, mundu kosmopolita haren artean.

Ordutik, eta oporretan, guretzako hura zen erreferentzia: begira begira, zein ondo pasatzen duten haurrek beren kantuekin! Hara, ikusi zelako dantza saioak, benetako artista! Hori da bizitasuna jartzen duena! Berari esker, eguneroko antzezpenetan euskara piska bat ere entzuten genuen.

Bazirudien bera han egonda edozer gauzatarako ere bagenuela laguntza berezia eta gainera oporrak igaro genituen inguruko bizitza bere ikuspuntutik ezagutzeko aukera eman zigun.

Kanpoan dabiltzan guztien artean ere danetarik egongo da, elgoibartarra topo egitean pozten dena, Elgoibarrekin zerikusia duen edozer ahaztea nahiago duena.... Kasu honetan, nere agurra guztientzat, eta bereziki horrelako goxotasuna sentitu arazi zigun Joseri!

**Edurne Bilbao**

K... .................................5
motz motz ................................ 8
gehigarria ..................................
kiROlAk ........................................ 20
aGenda ........................................ 24

2001-X-5

## Oharra

Datorren astean merkatu txikia atalean mezua edo agurra ipintzea nahi izanez gero, astearte eguerdia baino lehen ekarri behar da. BARREN, ostirala Pilar Eguna denez, eta, ondorioz, jai eguna, ostegunean banatuko da.

# Urruzunoren begi ezkutua



Burutik kenduko zuela zioten, eta lehen eguneko ilusio berari eusten ez zionik nork ziurta zezakeen? Betebehar bati soilik zor zaion konstantziaz jarraitzen zuen, fedeari zor zaion ohituraz.

Sentimenduak lore zahar legez zimelduko zitzaizkiolakoan zeuden, bihotzaren berotasunak gosez noiz itzaliko. Sostenguak gutxi ziren zinez, telefono dei bat negu hotzean, eta erbesteko bizipen elektroniko bi. Baina oroitzapenetatik abiatutako bidezidorrak... hamaika, hogei eta bi...

Larunbatero aukera berri bat zuela sinestuta zegoen, eta noiz hurreratuko zihoakion gaua, eguna, bizitza. Ikusi gabe joandako asteen luzeak, ahanzturaren hazia baino, desirarena landatua zion. Bestela, gertutasunaren magnetismoak (baina urruntasunarenak berdin) hitzak ebasten zizkion aspaldian; alferrik galdutako aukeraren amorrazioaren ordez, ordea, irribarre eta begirada haiekiko maitasuna betikotzen zitzaion.

Uztaren baleko fruituena ez ezik, ereitearen ametsen lilura ulertuko?

Mikel Artola

## ELGOIBARKO HERRIARI

Osasun Zentroaren bueltan aparkaleku falta dago inguruan egiten ari diren obrak direla-eta. Udalari P.M. Urruzuno kalean, larrialdietarako irteeran, aparkaleku batzuk egiteko eskatu genion.

Gure eskaerari, ordea, ez dio kasurik egin eta kargarako eta deskargarako lekua ipini du, honek guretzat dakartzan eragozpenekin.

Elgoibarko Osasun Zentroko Lehen Laguntza Saileko Arduradunak honen berri eman zion alkate jaunari pasa den irailaren 17an, baina oraindik ez du erantzunik jaso.

Egoera berean jarraitzen dugu eta horretaz aparte, gaizki aparkatzeagatik ipinitako denuntziak gero eta gehiago dira. Soluziorik ezean, arazo hau iritzi publikoaren aurrean salatu nahi dugu. Argi laga nahi dugu halakoren batean berandu iristen bagera, (autoa Sigmako rotondan edo estazioan lagatzeagatik), ardura Udalarena dela.

Elgoibar, Mendaro eta
Plaentxiko Larrialdietarako Laguntza Taldea (E.A.P)

ASTEKARIA
BaRRen

Nafazrea enparardza, 2
20870 ELGOIBAR
z 943 74 41 12
Publizitatea:
1, 943 74 37 04
FaXEI: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helhide informatikoa:
www.lepagunea.combarren
ARcfrkurzalLE0.
Elgotarko Izarra

EIGOIIARKO ZARRA
xvrrux

**LAGUNTZAILEA** Elgolbanto Udela ZuZEHDARA Eki AjzpunJ KAZETAIIRK Itati Agirreazaldegi, Asier Grtlea **PUBUZTATEA** Andoitz Pgirregomezkorla **MAKETAnAILEA** Bea Ansola **ADIMNISTRAZIOA** Amsia Rodrigez **GERENTLIA** Ainboa Lodoso, Nestor FuenleS, Pello Mendizabat Juan M. EluStondo, Aterto Ansuategi, Edume Ribao, Golion Aniela, Jon Peli Unguen. **KOLAEORATZAILEAK,** Lotea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Olga Unzfila, Montse Arregi, Juan no Gorostrza, Jon Gurrubraga, Jon Eugr Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta UrnizUno **AZALEKO ESAERA TAILARRA** Gotzon Garateren libortnik **iNPRIMATEGt4** Genu Koop. E. **T1RADA** 4.000 ale **LEGE GORDAILLIA** SS-1.038I92 ISSN 1132-1855

*Elgoittarko tIdalak, Eusko Jandaritzoko Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

rs kutxa Isktr

1DANOBAT IA.401,11 2>GOITI GRIIPO DANOBAT Efj.KRTA

41,

Eigoibartal rc MUNDUAN ZEHAR

2001-X-5

C?3

• Herritar batek honako galdera hauegin nahi du: "Karakolean, obrak amaitu ostean, pintura muestrak ikusi ditut bertako paretean margotuta. Ez dakit margotzeko asmoarekin aukeraketa egiten ari diren ala ez. **Karakola margotzeko asmorik ba al dago?".**

Honen berri jakiteko Udaleko Hirigintza Sailera deitu dugu eta honakoa esan digute: "Bal, **margotzeko asmoa dago.** Oraindik obrak ez daude amaituta, margotzea falta da, hain zuzen ere. Lehengo hilean margotzekoak ziren, baina ezinezkoa izan zen. Karakoleko lanak paretak margotu ondoren amaituko dira". Beraz, epe laburrean izango ditugu amaituta lanak.

11E11111




• ONCEko kupoiak erosi ohi dituen emakume bat etorri zaigu BARRENera **Merkatu Plaza aurrean, kupoiak saltzen dituzten kioskoaren aurrean, auto ugari aparkatu ohi dituztela** eta kexatzera: "Kotxiak kioskuan aurrian aparkatzen ditxue eta ezin da pasatu ere egin. Askotan kioskuari pegauta jartzen ditxue eta saltzailiantzat ere problemia da. Igual soluziva kabinia hortik kentzia izango litzake"

## ESKANDINAVIA



Irlandara edo Eskoziara joatea zen **Xabier Alberdik,** Kristina Berguak eta Victor Vazek oporretarako planak egiten hasi zirenean zeukaten asmoa, baina oferta bat ikusi, norabidea aldatu eta Eskandinavian izan dira 8 egunez. Sueziako hegoaldea, Estokolmo eta Noruegako hegoaldea eta erdialdea bisitatu dituzte; Oslo, Bergen, eta fiordo nagusienak. Bidaiatik gehien gustatu zaiena zer izan den galdetu eta zera erantzun digu Xabierrek: "Han ikusi dugun natura beste inon aurkitzea zaila da. Pena bakarra nahiko ingurune laiotza izatea da. Fiordoetako paseoa bertatik ikusi beharreko zerbait da, hitzez azaldu ezin claitekeena". Jende gehienak ikusi ohi dituen lekuez gain, bertako etxe tipikoak biltzen dituen museo bat ikusten ere izan ziren. "Bertako garai bateko arropekin jantzitako gazte batek, hango musika tresna berezi batekin kantu bat eskaini zigun. Hango kultura ezaguteko modu bat izan zen". Turismoa asko landu gabe daukatela esan digu Xabierrek: "Ez dute turismoa bultzatzen. Noruegako kultura oso lasaia da, eta ez dute lasaitasun hori galtzerik nahi. Horregatik da hain toki polita, ez dutelako jende kopuru handia hartzen eta ez daudelako kanpotarrak hartzeko prestatuta".

VIAJES
311.21:10 FJCPCESS
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12



# Imsersorekin opi

Oroimenean galdutako kontua izango da oporrena askorenizat, bada, ordea, oporretan pentsatzen hasi denik ere. Jubilatuetaz ari gara, espainiar estatuko 400.000 jubilatu inguruk oporretara joateko aukera izango battu Imsersort esker. Elgolarren ere makina bat jubilatuk tzango du datozen hilabeteetan Bentdorm, Mallorca, Tenerife edo beste tekuren batean oporraldia pasatzeko zorfea. Batzuk oporretara lehen aldiz joan ahal izango dira, beste batzuk neguan eguzkia hartu dute eta tzango da ligatzeko aprobehratuko duenik ere.

Imsersok (Instituto de Migraciones y Servicios Sociales) bi funtzio betetzen ditu. Batetik jubilatu entzat edo 3. adineko pertsonentzat oporraldiak eskaintzeko zerbitzu moduan funtzionatzen du eta bestetik, zonalde turistikoetan lanpostuak mantentzeko balio du. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioak 8.090 milioiko aurrekontua izango du ekirnen hau aurrera ateratzeko eta 30.000 lanpostu sortzea espero dute.

**NOLA FUNTZIONATZEN DU IMSERSOK?**

Martxoaren inguruan Imsersoko bidaiak eskatzeko inprimakiak banatzen dituzte Jubilatuen B iltokian. Aurreko urtean bidaiatu zutenei etxera ailegatzen zaie. Udaletxean ere eskura ditzake nahi duenak. Inprimaki hauetan 3 bidaia mota dituzte aukeratzeko. Lehen bidaia mota penintsula barruko (Balear Irlak barne) hiri edo herrietara egiten dena da. Bigarren bidaia mota, berriz, zirkuituak deiturikoak dira. Hauetan, Asturiasen, Portugalen, Cantabrian, e.a., egun batzuetako ibilbideak burutzen dira. Azkenik, Canariar Irletara egiten diren bidaiak daude. Bidaia



agentziek penintsula barruko bidaiak gestionatzen dituzte eta "Mundo Social" erakundeak, aldiz, beste bi bidaia raotak. Canariar Irletara bidaiatzeko toki bat lortzea oso zaila izan ohi da.

Imsersok 3 epe jartzen ditu bidaia agentzietara joateko. Aurten, irailaren 22tik 24ra, irailaren 25etik 26ra eta irailaren 27tik 28ra izan dira. Jende pilaketak eragozteko eta agentzien lana errazteko bereizten dira 3 epe. Fase batean edo bestean sartzeko, jubilatuen adina, diru sarrera kopurua eta aurreko urtean Imsersorekin bidaiatu duten edo ez hartzen da kontutan. Elgoibarren Halcon eta Ecuador bidaia agentziek eskaintzen dituzte Imsersoko bidaiak.

Jubilatuek nora eta noiz joatea gustatuko litzaiekeen esaten diete agentziakoei. Lehen epea irekitzen denean, ordenadore bidez saiatzen dira bezeroek eskatutako lekuak eta datak erreserbatzen. Aurten, Matalascañas, Lloret del

**Mallorca et dira Imserse gehien eskatu eta udaberr gogoko**

IMSERSOKO BIDAIETAZ GOZATZE

## EZAUGARRIAK

Gutxienez **65 urte beteak** izan behar dira (60 urte beteak dituzten aurrejubilatuak ere onartzen dira)

**Imsersoko akreditazioa beharrezkoa** da

Eskatzaileak **bere kasa moldatzeko gai izan behar** du eta ez du arazo psikiko edo fisikorik izan behar.

Eskatzailearen laguntzaileak, **bere emazte edo senarrarekin bidaiatzen**

## "Benidorm-en bakarrik ez, leku danetan ikusten dia ligiak"

Maria Jesus iniaz



*Mari Karmen Azkue, Edurne Zabala, Pili Zabala eta Maria Jesus Imaz Torremolinosera joan ziren Imsersori esker. Argazki hau Tanger-era egin zuten txangoan atera zuten.*

# rretara

Benidorm
) bidaietan
dituztenak
garairik
ia da

Mar, La Manga, Benidorm, Mojacar eta Mallorca izan dira aukerak. Mallorca eta Benidorm dira gehien eskatzen dituztenak eta udaberria, berriz, garairik desiratuena. Irailaren 22an (I. epea) goizeko 10:00etan hasten dira agentzietakoak plazak erreserbatzen. "Caza y captura" modukoa izaten dela aipatu digute, 5 edo 10 minututan lekurik eta datarik onenak hartuta egoten baitira. Hirugarren epealdian agentziara joan behar dutenak dira aukera gutxienekoak. Jende asko joaten omen da lehen epera pasatzeko eskatuz, baina horrelako tranpatxoak egitea ezinezkoa dela esan digute agentzietakoek,

) BETE BEHARREKO

**du ez da beharrezkoa**
**nek pentsio eta adin**
kakizunak **betetzea.**

Bakoitzak **bidai bakar bat**
n dezake.



Alicia Marcos (75 urte) eta Maria Jesus Imaz (63 urte) Benidorm-era joango dira datorren azaroaren 8tik 23ra bitartean. Hirurak dira alargunak eta bidaiazaleak. Orain arte Imsersori esker egin dituzten bidaiekin oso gustura daude, eta dirua eta osasuna duten bitartean jarraitzeko asmoa dute.

**Imsersorekin bidaiatzen duzuen lehen aldia al da?** Ez, ni (Maria Jesus) 7 aldiz jun naiz oporretara Imsersokin. Mallorcan, Torremolinosen, Saloun, La Mangan, egon naiz. Aliciantzat, berriz, bigarren urtia da.

**Orain zallagoa al da aukeratua izatea?** Bai, lehen nahi zaben ixa danek lortzen zaben jutia, baina oin dala 3 urte jendia selekzionatzen hasi zian. Pentsiva, inoiz Imsersokin biajau dozun edo ez... kontutan hartzen hasi zian. Sistema berri hau hobeto dauala beitxantzen jata. Oin danok ditxugu aukera berdinak, lehen azkarren ibiltzen zianek hartzen zitxuen lekurik eta fetxarik onenak.

**Zein dira Imsersoko bidaien abantaila nagusiak?** Batez ere preziva. Oporrek balixo dabenan %40 bakarrik pagatzen dogula entzun dot. Oso merke urtetzen jaku. Prezivan, biajia (abioia eta autobusa barne), hoteeko estantzia pentsio osuan eta segurua sartzen dia.

**Zer moduzko hotelak izaten dira?** Kategorixakuak. Prezio horretan hotel eskasak izango diala pentsau leike, eta etxian ere hori esaten ziguten, giltzurrun batekin itzuliko ginala. Hotelak oso modernuak dia, eta primeran tratatzen gaitxue. Nahi beste jateko, gabian dantza konkursuak...

**Eta giroa?** Udako sasoitik kanpora leku batzuk nahiko hilda egoten dia. Mojacarren adibidez ez da arimarik egoten eta danok Imsersokuak gerala igartzen da. Eskerrak inguruko lekuetara eskursivak antolatzen ditxuen. Benidorm-en ez da hainbeste igartzen eta giro politxa egoten da. Benidorm-ek aukera asko eskaintzen ditxu; hondartza, pasiatzeko Ieku aproposak, gabeko girua...

**Egia al da asko Iigatzen dela?** Gauden moduan gustura gaude, baina egixa da ligatzen dala. Ez bakarrik I3enidorm-en, leku danetan ikusten dia ligiak. Dana dala, matrimonixuak jutia da normalena. Gu moduan alargunak elkarrekin ikustia raruaua da. Behin 9 alargun jun ginan elkarrekin Torremolinosera.



*Maria Jesus Ima Alizia Horno Benidormera clodz Imsersorekin*

# Virginia Zuazo elgoibartarrak jaso zuen perretxiko lehiaketako lehen saria

## J. Agustin Olasolori mikologia arloan egindako lana eskertu zioten Karakate Elkartekoek





*J. Agustin Olasolo "Lauko"-k jaso du aurten Bernabe Mujika saria (ezkerrean). Goian, Debarroko Perretxiko Lehiaketan parte hartu zuten gaztetxoak.*

Joan den igandean, irailaren 30ean, Debarroko Perretxiko Lehiaketa egin zen Karakate Mikologia Elkarteak antolatuta. 25 taldek hartu zuten parte, iaz baino 9 gehiagok. Irabazlea, iaz ere sarituen artean izan zen, bigarren postua eskuratu zuen Virginia Zuazok, eta aurten 1.077 punturekin, lehena izan da. Berak jaso du "EntoIoma Sinuatum" sortarik onenaren saria ere. Bigarren saria Imartol Ansolari eman zioten eta hirugarrena, berriz, Egoitz Ansolak jaso zuen. Azken honi "Amanita Phalloides" sortari dagokion sari berezia ere eman zioten.

Bestalde, partaide guztiek mendi ibilaldia egingo dute Karakateko kideekin perretxiko ezberdinak ezagutzeko.

Ohiko sariez gain, iazko bideari jarraituz, aurten bigarren aldiz banatu dute Bernabe Mujika saria. Aranzadi Zientzia Elkarteak jaso zuen iaz eta Jose Agustin Olasolo "Lauko"-ri eman diote aurten. Elgoibartar honek Karakate Elkarteko mikologia sailean egindako lana eta perretxiko lehiaketa antolatzen emandako laguntza eskertu nahi izan dute sari honekin. Izan ere, Bernabe Mujika zenarekin batera perretxikoen gaia asko landutakoa da "Lauko".

**Irabazieen zerrenda**

1.saria: Virginia Zuazo
2. saria: Imanol Ansola
3. saria: Egoitz Ansala
"Entoloma Sinuatum" sortarik onena: Virginia Zuazo
"Amanita Phalloides" sortarik onena: Egoitz Ansola

## Irailaren Gtik hona eskatu diren BARRENeko harpidetzak berriz egin behar dira

Arazo informatiko bat dela-eta irailaren 6tik aurrera eskatutako harpidetzak zein helbide aldaketak ezin izan ditugu egin. Ondorioz, zuetako batzuk ez zenuten azken asteotan BARREN jasoko. Beraz, hemendik aurrera astekaria zuen etxeko buzoietan jaso nahi izanez gero, BARRENeko erredakziotik pasa, edo honako telefono hauetako batera deitu: 943 74 41 12 (BARREN) edo 943 74 16 26 (Elgoibarko Izarra).

## Olegario Gonzalez, Lourdes Uranga eta Patxi Garcia izan dira Txankakuaren uztalleko zozketako sarituak

Tztailean egin zen Elgoibarren Nazioarteko Folklore Jaialdia, eta bertako sarrerekin Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak 10.000 pezetako hiru sariren zozketa egin zuen. Joan den asteartean banatu zituzten Txankakuako ordezkariek erosketa txekeak, Kultur Etxean. Olegario Gonzalez, Lourdes Uranga eta Patxi Garcia izan dira zortedunak eta orain Txankakuako partaide diren denda zein tabernetan gastatu ahal izango dituzte.



# Gurutze Gorriak anbulantzia berria edukitzea nahi du urte amaierarako

## 162.000 pezeta jaso dituzte oraingoz herritarrengandik

Joan den uztailean anbulantzia berria erosteko dirua jaso asmoz deialdia egin zien herritarrei Elgoibarko Gurutze Gorriak. Oraingoz 162.000 pezeta bildu dituzte, baina beharrak eraginda kontu zenbakia irekita izango dute ahalik eta diru gehien eskuratu bitartean. Izan ere, anbulantziak 8 milioi pezetako kostua du. Ibilgailua eskatuta dago eta anbulantzia moduan erabiIi ahal izateko prestatzen ari dira. Prestaketa lana bi Mabetekoa izango da. Beraz, asko jota urte amaierarako anbulantzia beraien eskuetan izatea espero dute. Bitartean zaharrarekin ibiliko dira, momentuz ibilgailu bakarra daukate-eta: "Mintxetan dagoen anbulantzia erretiratuta



*Anbulantzia zaharrak 8 urte ditu, eta urgentzia zerbitzuetaraka erabiltzen da*

daukagu. Orain erabiltzen ari garena bezalakoa denez, haren piezak aprobetxatzen ditugu zerbait hondatzen denean. Berria ekarri bezain pronto bi zaharrak desguazera eramango ditugu", esan digu Mila Picaza Elgoibarko Gurutze Gorriko zuzendariak.

Herritarrek oraindik dirulaguntza eman dezakete BBVAko 01820317910011509933 kontu zenbakian. Baina horretaz gain, Gurutze Gorriko urteroko aurrekontutik hartuko dute anbulantzia ordaintzeko kopuru bat.

**Beste zerbitzuak**

Urgentzia zerbitzuak bakarrik ez ditu egiten Gurutze Gorriak. Lehen laguntza eskaintzeaz gain, gaisoen trasladoak eta gizarte arloko ekintzak ere egiten dituzte. Mila Picazak esan digunez, "orain, hainbat enpresak emandako janaria banatzen ari gara behartsuei".



# Sakk nikkgel baikarako jaiekin amaitu dira, aurtengoz. Elgoibarko auzoetako jaiak

Bertsoak, musika, dantza, pilota, artzai txakurrak, boloak... izan ziren protagonista San Migelen joan den asteburuan. San Migelen omenez ospatutako jaiekin amaitu dira aurtengoz Elgoibarko auzoetako jaiak. Txapelketa ugari jokatu da bailaran, baina lagun arteko giroa izan da txapeldun nagusia San Migelen, eta jendearen partehartzea ere aipatzekoa da. Hori saritu nahian-edo txekorraren zozketa egin ohi da urtero San Migelen. Aurten zenbaki saritua 5.202 izan da, eta 15 eguneko epean azalduko ez balitz 5.711 da ordezkoa.

# Atentatuen egunean EEBBetan zeuden Elgoibarko 3 gazte astelehenean itzuli ziren etxera



AINHOA URIARTE



A1AZNE ESCUBER0



SARAY BILBATUA

Joan den astelehenean bueltatu ziren Euskal Herrira irallaren I 1 ko atentatuak gertatu zirenean Estatu Batuetan zeuden 50 ikasle, tartean Ainhoa Uriarte, Nagore Eskudero eta Saray Bilbatua elgoibartarrak. Eusko hurlaritzako beka batekin hilabete pasa dute EEBBetako familietan ingelesa ikasten. Elgoibartarrak Bostonen ziren atentatuak gertatu zirenean eta Ainhoak esan digunez, "egunian bertan bildurtu ginan beste abioiak leku konkretuetan botako zitxuztela esan zabelako, eta ezin gendun jakin gu gaozen tokira jausiko zian ala ez. Bestela, familixiak euki dau preokupazio haundixaua guk baino".

0441,4,, 14444,1 (4,1),-4141

GOROSTIZA
Liburudenda
Errosario, 16 a 943 74 03 88
JOSTAILUAK
ESKOLAKO IVIATERIALA
OPAFIIAK
FOTOKOPIAK
PAPERTEGIA

FADEK
ileapaindegia
solariuma
Errosario, 35 behea Tel: 943 74 26 92

GABILONDO
TABAKO DENDA
Errosario, 2 - 943 74 16 38

Sara
Errosario, 12 · 943 74 35 55

Li 1421
GAZTEENTZAKO MODA
Erromrio, 25 - 943 74 23 02

INMUE BLE AGE NTZIA

# ERRC









1992.ko jaietan bildu ziren lehen aldiz kaletarrak Amabirjinaren aurrean Salbea errezatzeko. Egun hartan gainera, izugarrizko euri zaparrada hasi zuen. Batzuen ustez, Errosarioko Amabirjina izan zen eurite hori bota arazi zuena. 2001. urtean Errosario kaleko jaiak antolatzen jarraitu dute hainbat pertsonek, Errosario kalean bost pertsonak osatutako komisio bat dago eta beste bat jaien antolaketaz arduratzen da. Hiru egunekoak izan ohi dira jaiak, barixakutik domekara. Ohiturari jarraituz, ez zaio sekula ere Errosario Kaleko Amabirjinari Salbea eskaintzeari laga. Aurten ere, bezperan, arratsaldeko 20:00etan, Errosario kalean hildako guztien aldeko mezaren ondoren, Salbea errezatuko da Amabirjinaren aurrean.

# SARIO kafeko

# j aixak



**1919.** urtean 8 eguneko jaiak ospatu omen zituzten Errosario kalean. Informazioa 1956. urteko San Bartolomeetako programan aurkitu dugu. Oso bitxiak izan ziren, gainera, urte hartako jaiak: Orduko alkatearen, Antonio Arrilagaren baimenarekin, 8 pertsonako komisio bat osatu zuten jaiak antolatzeko. Errosario kalea "Estado independiente" deklaratu zuten eta honttarako pertsona desberdinak hautatu zituzten jaietan "Estado" horretan karguak izateko. Horrela: erregina, ohorezko damak, gobemadorea... Zortzi egunego agintea izan zuten eta programak dionez, erreginak negar ere egin zuen jaiak amaitu ostean, koroia laga behar izan zuenean, zortzigarren eguneko goizeko 5:30ean, hain zuzen ere. Hori bai, Urreta Garatek, gosaltzeko baratxuri zopa, hirugiharra menbriloarekin, bizkotxoak txokolatearekin eta "Amoro"-ko boladuekin ura ekartzeko agindu omen zien ohorezko damei.

## "Duela 55 urte, altria hil zanian, hasi nintzan Erroxarixoko Amahlrfina zaintzen"



Ignacio Mugerza "Ruso"

Urie asko daramatza Ignaciok Errosarioko Amabirjinari loreak ipintzen eta Errosario Egunerako irudia apaintzen. "14 edo 15 urtekin aitxari laguntzen nion. Berak irudixa garbitzen zaban bitxartian, nik eskilariari heltzen nion. Gero, aitxa hil zanian, nik hartu naban arduria, gaur arte". Ignaciok esan digunez, inotz ez omen da irudia dogoen paretako kristala apurtu, jendeak begirunea dio irudiari. "Iirtian behin garbitxu, hautsa kendu eta nitxua txukuntzen dot bizperan eta, bi urtian behin, lora artifizialak ipintzen ditxugu. Gaur egun, bonbilak eta holakuak Udaleko langillek ipintzen ditxue". Gai den bitartean jarraitu omen du "Rusok" lan honetan, baina atzetik, tradizioa ez galtzeko, iloba asko ditu eta bere ustez "Iloben artian, bateron batek hartuko dau horren arduria".




Ohdoit(4444 j4e(441

**Dori**
urdaitegia
APARTEKO PRODUKTUAK
Errosario, 29 ℡ 943 74 11 92

**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK
Manu Leizabe Loyola
**MAStER** Salmenta eta zerbitzu teknikoa
TB • BIDEOA • HI-FI • DVD
ETNEKO BESTE BAT FAMIIJAN
Errosario, 8 • rt 943 74 00 54

OINETAKO KONPONKETA
MERINO
Giltzen kopiak egiten ditugu!
Errosario, 11 behea
ELGOIBAR
Tel. 656 72 81 12



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAXA

27v.z/7/'
7.4.9-..Y.7thdry.(k Solariuma
Errosario 9, 1-ezk. Tet. 943 74 44 89



HARATEGIA-URDAITEGIA
EUSKAL OKELA
**ZIARDA**



Errosurio, 10 • 943 74 05 54

## Pilotu suiziden jarrerak harridura sortzen du mendebaldean

# EMANGO AL ZENUKE BIIITIA ZERBAITEN EDO NORBAITEN ALDE?



### BEGONA ELIZONDO

**44 urte, etxekoandrea**

Bizitza ez, baina ahal nukeen guztia egingo nuke Iagun edo familiakoengatik. Politikagatik baino, adiskidetasunarengatik izango litzateke. Dena den, pilotuek egin dutena basakeria da.

### MIGUEL ANGEL VELA

**32 urte, delineantea**

Ez dakit, agian fainiliarengatik. Baina egoera horren aurrean egon arte oso zaila da zer egingo nukeen esatea. Pilotuak zoratuta daude, bestela ez dago hori egiteko beste arrazoirik





### LURDES ARRIZABALAGA

**66 urte, etxekoandrea**

Familixiagaitxik bai, eurak salbatzeko giltzurrunak edo gibela eman bihar izan ezkero eingo nuke. Baina piloto horreri "Iavado de cerebro" esaten jakona eingo ziuen; ostian ez da normala holako disparatiak eitxia.

### MIGUEL RUBIO

**62 urte, jubilatua**

Ordua iritsi arte ezingo nuke erabakia hartu. Pilotuek egin dutena ez zait bidezkoa iruditzen. Beraien buruaz beste egin nahi badute, egin dezatela, baina beste inor hil gabe.





### ARANTZAZU GOROSABEL

**38 urte, irakaslea**

Ez, ezta pentsatu ere, holako kasuetan ez behintzat, eta kanpotik eta hotzian begiratuta are eta gitxiao. Pilotu suizidak fanatiko batzuk diala uste dot eta ez dot beraien jokaera ulertzen.

### JOSE MANUEL CASTELO

**54 urte, ebanista**

Arrazoia oso garrantzitsua izan beharko litzateke bizitza emateko. Norberak eman dezake bere bizitza zerbaitengatik, baina beste inor arazo horretan nahastu gabe.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ,
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %oi OEKO BEHERAPENA

9444 T aaMeft Wit4 k teM 4 16 otelelel,

AMIMA
Tel: 943 74 10 11

ASTEKARIA

d

# E rriqz. kkE\ a



SALTSA ASKOTAKO PEREJILA DA, EUSKARA, POLITIKA, LAN-MUNDUA, GUZTIAK JORRATUTAKOA. ASKOTAN BURURATU OMEN ZAIO BERE BIZITZAKO PASARTEAK ORRIETAN BILTZEA, BAINA JENDEARENTZAT INONGO BALIORIK IZANGO EZ ZUELAKOAN-EDO, GERORAKO UTZIAZ JOAN ZEN. GERO, NORBAITEN ESKARIZ IDATZI ZITUEN HAINBAT KONTAKIZUN, ETA GUK HORIETAKO BATZUK BERE AHOTAN ENTZUTEKO PARADA IZAN DUGU, BA1TA ZUENGANATZEKOA ERE. ELGOIBARKO BERBETA JATORREAN JARDUN DUGU r,..ELDr ETXEBERRIA PARAPA EKI IZKÈtAN.

## Felix Etxeberria

"ELGO113ARK0 IZARRAN, HASIERAN, 1.400 BAZK[DE IZATERA AILEGAU G1NAN"

*PARAPAN BASERRIAN SORTUA. ZORTZI URTE ZITUELA HASI ZEN ESKOLAN, ETA KREDOA IKASTEN EMAN ZUEN DENBORA GEHIENA. BASERRIRA BUELTATU ZEN GERO, ETA HANDIK BERRIZ ERE KALERA, TAILERRERA. HAINBAT LANIEGITAN LANEAN JARDUNDAKOA DA FELIX ETXEBERRIA, BAITA HERRIKO BESTE BI LAN7EGIREN SORTZAILEA ERE, DANOBAT ETA ETXEPERENA. EUSKARAREN ALDE LAN ASKO EGINDAKOA DA, KULTUR ELKARTEEN ETA IICASTOLEN SORRERAN, ESATERAKO. ORAIN ERE MAIZ IKUSIKO DUGU FELIX EUSKARAREN INGURUKO EKIMENETAN PARTE HARTZEN. AKTIBOA DA BERA ETA EGUNERO EGIN OHI DU GOIZETAN IBILALDITXOA. ASTE HONETAN, ORDEA, EGUN BATEKO PASEOA ETEN DIOGU ETA GURE ARTERA EKARRI DUGU BERA PROTAGONISTA IZAN DUTEN BIZIPENEN BERRI jAKITEKO.*

# Fellx Etxeberria, "Parapan"

## "Kooperatibia zer za





**I Gogoan al dituzu eskola garaiak?**

8 urtekin hasi nintzan eskolan eta 11 urtekin bukatu zan nere karreria. Andereñuak hasi 5 urtetik eta 14 urtera bitxarteko 75 ume zaukazen. Guri elefantian figuria ematen zigun, artazixekin zatixak moztu eta papelekin betetzeko. Orduan ez genekixan erderaz eta doktrinatik hasitxa dana zan erderaz. Kredua ikasten pasau naban eskolako garaixa. 14 urtekin peoitzan hasi nintzan Eibarren, handik Orbeanera, gero Sigmara eta Jarvera jun nintzan. Soldau jun nintzanerako ajustadore ofiziva ikasitxa nakan.

**▶Nondik etorri zitzaizun Danobat sortzeko idea?**

29 urte-edo nitxuala Azkoitxiko lagun batek kinielan diru mordo bat atarako zabala eta diru harekin ze in galdetu zian; nik tailarra ipintzeko esan nion. Gero pentsau naban ez zauala Icinielia igarri biharrik, bakoitzak diru piskat ipinitxa nahikua zala. Danobat 1954ko urtarrilian hasi zan martxan eta Arrasateko kooperatiben mobimientua bi urte geruao jaixo zan. Nik kooperatibia zer zan ez nakixan, baina nere asmua danak bazkide izatia zan, eta lagunelcin taldia osauta sortu naban Danobat. Gaur enpresa bat ipintzeko dirua badakazu dana einda dao, baina guk ixa urtebete ein genduan tailarra preparatzen. Nik Iortutako gauza danak ez dia nik bakarrik eindakuak izan: ni akulua izan naiz, jendia beti bilau dot nahi dotena eitxeko, bai ikastolen kontuan, bai tailarrian...

**"12 DAKAT ELIZIAKIN HEMENGO APAIZ Bi FINAK, BAINA ELI EUSKAL HERRIXA**

**Zuk esan bezala, lantegiko lanaz gain, beste arlo batzutan ere lan egindakoa zara. Nolatan irakasle?**

Eskolara gutxi jun nintzan eta beti sentidu dot falta hori. 1956 inguruan alfabetatzeko gau-eskolan hasi nintzan ikasten eta handik bi urtera 12 eta 16 urte arteko gaztieri euskera erakusten. Orduan boga-boga liburu a bakarrik zauan eta ahal genduan moduan moldatzen ginan. Umiekin mendira ere jaiero juten ginan.

**Gerora Ikastolaren sortzaile ere izan zinen.**

Umiekin alde batetik bestera ibiltzen ginan, eta lokal bat erosteko asmua euki arren, dirurik ez zauan. Nik ez dot diruan bildurrik sekula euki, di-

# jakin gabe sortu naban Danobat"



ISMEN ASKORIK, IZANGO DIA HAUNDIXAK DAU MAITE"

rurik ez nakala eta gauzak ein gabe ez nintzan geratzen. Lokala erostia pentsau genduanian egunez ere hasi zian klasiak. 1962ko maiatzian ipini genduan martxan ikastolia, Itziar Ajuria izan zan lehenengo andereilua.

Herriko kultur elkarteen sorreretan parte hartutakoa ere bazara.
Ongarri euskerian alde lana eitxeko sortu zan, eta lehenengo batzordeko partaide izan nintzan, dantzako arduradun. Oingo Haritz Dantza Taldian sorreria orduan izan zan. Taldiak euskerian alde lan ein arren, hitzaldixak-eta danak erderaz izaten zian eta horrek ez ninduan betetzen. Orduan, Elgoibarko Izarra sortu genduan. Asko lagundu zian Sabin Osorok araudixa preparatzen. Hasieran 1400 bazkide izatera ailegau ginan.

Felix Etxeberriaren, izena Etxeperekin ere lotu beharra daukagu, ezta?
Tailar bat ipintzia pentsau naban eta bertan lortutako diruan zati bat euskerian aldeko lanetarako ibiltzia. Gainera, idatzizko hartu-emanak euskara hutsian eitxen dia, baitxa fakturak eta eskarixak ere. Euki ditxugu nahigabiak Gasteizen bertan ere. Burgosera edo Frantziara ere papelak bi hizkuntzatan bialtzen ditxugu. Langiliek ere Etxepen sartzeko euskeraz jakin bihar dabe.

Burgos aipatu duzu, eta badakigu Burgosko epaiketa famatu hark izan zuela eraginik zure bizitzan. Nola gogoratzen duzu?
Bateron baten kejia eongo zan eta lau anaixok kuartelera deitxuak izan ginan. Gaizkixen ni atara nintzan, lau orduan makilapian eotia gogorra da-gero. 15.000 pezetako multia eman zien, baina ez naban ordaindu. Azkenian erregian amnistiakin libre urten nintzan.

I Zure lana, beraz, ez da alferrikakoa izan eta horren adierazle dira egin dizkizuten omenaldiak.
Ez dakit merezitxakuak izan dian, baina omenaldi txikixak jaso ditxut. Dana dala, badakat beste baten nahixa, baina ez dakit lortuko doten, nere esku ez dao. Danobaten bastante ahaztuta daude, ez nerekin bakarrik, lehenengo parte hartu genduan danokin baizik. Gaur Danobaten dauan jendiak ez dau galdetu ere egingo zeinek ipini zaban martxan tailarra.

Egindako zerbaiten damu al zara?
Ein ez ditxuten gauzen penia dakat. Ez naiz arduratu eskola aldetik nere burua jazten. Erakusten ibili nintzanian ere nere burua preparau biharrian nakixanakin aurrera eitxen naban.

Felix Etxeberriak ba al du ezer herritarrei esateko?
Elizan, politikan, euskerian aldeko lanetan... bagerala, sinisten dogula esaten dou hitzez, baina hori betetzeko eskauko nieke herritarrei. Gure akatsa esaten dogun bezela ez bizitzia da. Nik ez dakat eliziakin sinismen askorik, apaiz batzuk izango dia hemen finak, baina eliza haundixak Euskal Herrixa ez dau maitxe.



"TAILAR BAT IPINTZIA PENTSAU NABAN, ETA BERTAN LORTUTAKO DIRUAN ZATI BAT, EUSKERIAN ALDEKO LANETARAKO IBILTBA"

# atzera begira

## pausoz pauso



1926ko azaroaren 24an jaio zen Parapan baserrian. 8 urtetik 11 urtera bitartean eskolan aritu zen kredoa ikasten. 14 urte zituela peoi lanetan hasi zen Eibarren.

- Kooperatiben mugimendua ezagutu gabe, Juan Garaterekin batera, Danobat martxan jarri zuen 1954ko urtarrilaren 2an.

1956an gau eskoletan hasi zen alfabetatzen, eta ikastetik irakasle lanetara pasa zen gero. Lurdes Alberdi, Miren Vallejo eta Jesus Larrañagarekin batera 10 eta 14 urte arteko gazteei euskara irakasten aritu zen.

- Herriko kultura elkarteen sorreran ere ezin da aipatu gabe utzi Felixen izena. Ongarrin lehen batzordeko kide izan zen eta dantza arloko arduradun. Ondoren,1962an Elgoibarko Izarra sortu zuten kultura euskara hutsez lantzeko asmoz.

- 1962an Ikastola sortu zuten. Gerora beste herrietako ikastolen sorreran lagundu zuen. Ikastolen Elkarteko kide ere izan da.

- 1970. urtean, Burgosko epaiketaren garaian, kuartelean egurtua izan zen.

- 1973an Etxepe lantegia sortu zuten, bertako harremanak euskara hutsez egiteko asmoarekin eta lortutako diruaren zati bat euskararen aldeko lanetan erabilizeko helburuarekin.

- Egindako lanaren ordainetan hainbat omenaldi jaso ditu Felix Etxeberriak.

- Gaur egun irakurtzea eta paseatzea du gogoko. Egunero bi egunkari goitik behera trakurtzen ditu eta 20 kilometro inguruko ibilaldia egiten du.

## besteen ahotan



